



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018. 02. 09

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Bellosa
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar**

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vázquez

Kontuhartzailea:

Ainhoa Molinos Zubiaurre

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko otsailaren bederatzian, arratsaldeko ordu batean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeke.

1. Aurreko akta onartzea eta 2018ko urtarrilaren 22ko akta zuzentzea.
2. Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2017ko abendua.
3. Tolosako ikastetxeetan (Udalaren) Hezkidetza proiektua gauzatzeko, kanpoko laguntza teknikoa kontratatzeke kontratazio-espeditentea onartzea.
4. Enplegune 2016-2017ko diru-laguntzen kitapena.
5. Enplegune 2017-2018ko diru-laguntzen aurreneko ordainketa.
6. Beotibar pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilatua eta fatxada birgaitzeko eta pilotalekuko eraikineko irisgarritasun proiektua onartzea.
7. Beotibar pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilatua eta fatxada birgaitzeko eta pilotalekuko eraikineko irisgarritasun obrak kontratatzea.
8. 77/2017, 78/2017 eta 1/2018 faktura-zerrendak.



TOLOSAKO
UDALA

1. Aurreko akta onartzea eta 2018ko urtarrilaren 22ko akta zuzentzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, bi akta hauek aztertu dira:

- Aurreko akta onartzea

2018ko urtarrilaren 29an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

- 2018ko urtarrilaren 22ko akta zuzentzea.

2018ko urtarrilaren 22ko aktaren zuzenketa aho batez onartu da. Zuzenketa ondorengoa da:

- Inauterietako konpartsek Udal Ferialekua erabiltzeko baldintzak onartzea.

AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udala honako finkaren jabea da:

Ferialekua izeneko eraikina, San Esteban auzoak kokatua. Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, ondokoetan:

- Tomoa: 891
- Liburua: 106
- Folioa: 1
- Finka 5516

Bigarrena.- Udalaren asmoa da finka horretan inauterietako konpartsen karroza txikiak egin eta biltegitratzeko udal zerbitzu publikoa ematea, toki-erakunde bezala kultura eta aisiako zerbitzuak ematearen inguruan dituen eskumenen barruan, bat etorrita Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluko 20. eta 33. apartatuetan xedatutakoarekin.

Hirugarrena.- Adierazitako arrazoiengatik, Lehen apartatuan deskribatutako lokala da jabari publikoko ondasun bat, festetako udal zerbitzuari atxikia.

Laugarrena.- konpartsak/elkartek udal honi baimena eskatu dio aipatutako lokalaren zati bat erabiltzeko, 2018ko inauterietan erakutsiko duten konpartsen karroza txikia egin eta biltegitratzeko jardueretarako erabiltzeko. Jarduera hori da erabilera erkide berezi bat, zeren ez dituen baztertzen beste elkarte edo konpartsek sustatzen dituzten antzeko erabilerak, elkarte edo konpartsa horiek denek lagatako lokala partekatu behar dutelarik, dagokion udal lizentzian helburu horretarako ezartzen diren baldintzen arabera. Jabari publikoko ondasunen erabilera erkide bereziak lizentzia behar du, Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duen 1372/1986 EDaren 77. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrarena da ebazpen hau emateko eskumena, bat etorrita Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.q) eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin.



TOLOSAKO
UDALA

Aipatutakoa kontuan izanik eta Kultura teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondorengo baldintzak onartzea, inauterietako konpartsek Ferialekua erabiltzeko.

INAUTERIETAKO KONPARTSEK FERIALEKUA ERABILTZEKO BALDINTZAK

Tolosako Udalak baimena emango dio..... Konpartsari, Ferialekua erabili dezan, ondoko baldintzak kontuan hartuta:

Lehena.- Konpartsak egiten dituzten eragileek edo pertsonak elkarrekin bat sortu ahal dute, beren jardueraren aurrera eramateko eta behar diren tramiteak errazteko. Hori egin ezean, batetik, ordezkari bat izendatu beharko dute Udala honetik harremanetarako, eta, bestetik, dituzten kide guztien zerrenda Udalari eman.

Konpartsako kideek adinez nagusi izan behar dute. Adin txikikoak badira, beren gurasoek ordezkariak dituzte Udala honen aurrean.

Bigarrena.- Lizentziak baimendutako elkarrekin eta pertsonak erabili beharko dute lagatutako lokalak lagapenaren helburuetarako ez bestetarako, hau da, konpartsak egiteko, eta lokal horretan ez da baimendutako beste inolako jarduerarik.

Hirugarrena.- Lizentziaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoek egindako jardueretan zorrotz errespetatu beharko dituzte laneko arriskuak eta laneko osasuna prebenitzeko neurriak. Alde horretatik, Udalak edozein momentutan egin ahal izango ditu bere ikuskapenak, aipatutako araudia betetzen dela bermatzeko.

Laugarrena.- Erabiltzaileek saihestu beharko dute arrisku-, ausarkeria-, zurgabekeria- edo arduragabekeria-egoera oro, eta Udala honen eta hirugarrenaren aurrean erantzun beharko dute, baldin eta lizentzia honetan xedatutakoari jaramonik egiten ez badiote.

Bosgarrena.- Lizentziaren titular diren pertsonak erantzun egin beharko dute egiten duten jardueraren ondorioz, edo soilik lokalak okupatzearen ondorioz egindako kalteengatik —dela pertsonen, dela ondasunen egindakoak—. Alde horretatik, Udala honi nahiz hirugarrenaren egindako kalteengatik erantzun egin beharko dute, orobat, pertsonen egindako kalteak eta lesioengatik, halakorik egiten bada, pertsona horien lokalaren eta instalazioen erabiltzaileak izan edo Ferialekuarekin zerikusirik ez duten beste batzuk izan. Pertsonen lesioak edo ondasunen kalteak eginez gero, ordaindu beharreko kalte-ordainak izango dira bakar-bakarrik lizentziaren titularren kontura, zeinek Udala honi erantzukizun guztietatik salbuesten duten, eta ez da beharko frogatzeko elementurik.

Seigarrena.- Lokala erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek beti errespetatu beharko dituzte udal zerbitzu teknikoak emandako jarraibideak. Halaber, honako agindu hauek errespetatu behar dira:

1. Udala honi tokiko banatutako kontuan harturik jasotako eskaerak eta pertsona edo erakunde sustatzaile bakoitzaren beharrak.
2. Udala honi giltza bat emango du emandako lizentzia bakoitzeko, eta debekatuta dago giltza horren kopiak egitea.



3. Pabiloiko atean beti itxita egon behar du, eta debekatuta dago bertan egiten den jarduerarekin zerikusirik ez duen edozein sartzeari.
4. Azkena ateratzen denak itzali behar ditu koadroko argiak.
5. Debekekatuta dago lokalaren barruan ibilgailuak aparkatzea.
6. Udalak mugatu edo debekekatu ahal izango du instalazioetara sartzeari, interes publikoko arrazoiak direla eta.
7. Konpartsek su-itzalgailu bana eduki behar dute, eta karrozak egiteko erabiltzen diren materialek ahal den erresistentziarik handiena izan behar dute suaren kontra.
8. Saiatu behar da karrozek ez izatea konpartsa kideentzat edo beste pertsonentzat arriskutsuak izan litezkeen elementuak, dela eraiki eta biltzeko garaian, dela jendurrean erakusteko garaian.
9. Karroza bakoitzaren gehieneko neurriak udal zerbitzu teknikoek xedatuko dute.
10. Beren egonkortasunak bermatuta egon behar du.
11. Baldin eta karroza pneumatikoen gainean badoa, pneumatikoek behar bezalako erabilera-baldintzak eduki behar dituzte: marratua, egonkortasuna...
12. Karroza guztiak izan behar dute direkzio-mekanismo egokia, maniobrak erraz egiten uzten duena.
13. Gidatu behar badira, izan behar dute ikuspen-baldintza onekoak eta gidaria erraz sartzeko modukoak.
14. Motor-elementuek ez dute arriskurik sortu behar.
15. Karrozek babesteko hegal bat eduki behar dute beren perimetro osoan.
16. Argi-sistema ezin da gertu egon elementu erregai edo sukoietatik.
17. Erregaiaren birkarga ibilgailua gelditu dagoela egin behar da.

Zazpigarrena.- Jarduera bukatutakoan, lizentziaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoek elementu guztiak erretiratu egin behar dituzte eta pabiloia txukun utzi, jaso zuten bezala. Alde horretatik, Udalak eman ahal izango du dagokion exekuzio-agindua, baita agindutako eginkizunak modu subsidiarioan exekutatu ere, lizentziaren titular diren erakunde eta pertsonen kontura.

Zortzigarrena.- Lokala erabiltzeko baimena prekarioan ematen da; beraz, Udalak edozein unetan utzi dezake baliorik gabe, interes publikoko edo legezatasun- edo egokitasun-arrazoientzat.

Halaber, lizentziaren baldintzak ez betetzeak, berarekin batera, ekarriko du lizentzia baliogabetzea eta lokalaren erabilera bertan behera uztea, interesatuari entzunaldia eman ondoren, kalterik egin gabe kasuaren arabera bidezkoa den zehapen-prozedurari.

Bederatzigarrena.- Lizentziaren indarraldia otsailaren 23 artekoa izango da. Otsailaren 15aren eta 23aren artean, pertsona fisiko eta juridikoek lokala hustu eta garbitu behar dute.

Hamargarrena.- Emandako lizentziak izaera administratiboa duenez, Tolosako Udalak ematen dituen ebazpenak berehala betearazi behar dira bide administratiboari amaiera ematen badiote, bide horretan errekurrituta daudela kontuan izan gabe.

Emandako lizentziekin zerikusia duen eztabaida guztiak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan konponduko dira.”

BIGARRENA.- Tolosa Udaleko Kultura Departamentuak erabaki hauek jakinaraztea baimendutako konpartsa edota karroza sustatzaile bakoitzari, dagokion jakinarazpen formala eginez (jaso-agiria barne).

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek interesatuei eta Tolosako Kultura Departamentuari jakinaraztea.



2. Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2017ko abendua.

Aurrekariak

Tolosaldeko Mankomunitatearen Osoko Bilkurak, 2014. ekitaldian, irizpide berriak onartu zituen mankomunitateko gastuei aurre egiteko udalek egin behar dituzten ekarpenak zehazteko. Irizpide hauek bilketa sistema desberdinetan dute oinarria eta zati finko bat eta zati aldakor bat finkatzen dira. Zati finkoa, komunean dauden gastuei aurre egiteko, eta zati aldakorra, udalek jasotzen dituzten zerbitzuen kostuetan oinarrituta.

2016ko abenduaren 19an Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak 2017ko ekitaldiko aurrekontua onartu zuen, non ekitaldiko gastuen eta sarreraren xehetasunaz gain, udalen ekarpen finkoen banaketaren berri eman zen.

2017ko apirilaren 10ean, Gobernu Batzarrak Tolosaldeko Mankomunitateari ordaindu beharreko ekarpen finkoa onartu zuen. 2017ko ekainaren 1etik aurrera ekarpen finkoa, hileko, 92.742,17 €-koa da.

Ekarpen aldakorra jasotzen den hondakin kopuruaren eta bere sailkapenaren arabera da.

2017ko abenduko datuak

Ekarpen finkoa	92.742,17
Ekarpen aldakorra	
Bilketa kostuak	151.263,76
Diru-sarrerak	28.521,62
Guztira (2017ko abendua)	122.727,19

Aipatutako kontuan izanik eta Ingurumen teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

Lehendabizi: Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako ondorengo faktura onartzea

2017 abendua	122.727,19
--------------	------------

Bigarrena: Erabakiaren berri Kontuhartzaitzari ematea.

3. Tolosako ikastetxeetan (Udalaren) Hezkidetzaren proiektua gauzatzeko, kanpoko laguntza teknikoa kontratatzeko kontratazio-espeditentia onartzea.

2012. urtetik 2016ra, proiektu integrala ikas komunitate osoari begira garatu da, Hezkidetzaren filosofia herriko ikastetxeetan txertatzeko asmoz. Proiektuan udalerrian dauden ikastetxe guztiek hartu dute parte, eta ikastetxe horietako hezkuntza-komunitate



TOLOSAKO
UDALA

osoa hartu da aintzat: ikasleak, irakasleak, orientatzaileak, gurasoak, jangelako hezitzaileak eta kirol-hezitzaileak.

Era berean, hezkidetza-proiektua garatzeko eta proiektuari jarraipena egiteko gune estrategiko bat sortu zen: Hezkidetza Mahaia. Bertan, hasieratik parte hartzen dute Tolosako ikastetxe guztietako ordezkariak, Tolosaldeako Migrazioko teknikariak, Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta Gazteria eta Berdintasun Departamentuko teknikariak.

Lau urtetan zehar (2012-2016) lanean jardun ondoren, Tolosako Berdintasun Departamentuak erabaki zuen une aproposa zela geldialdia egiteko. Batetik, egindako lana sistematizatzeko eta sakonki ebaluatzeko, eta, horrekin batera, egungo egoeraren diagnostiko berria egiteko; eta, diagnostiko horretan oinarrituta, etorkizuneko erronkak eta ildo estrategikoak berritzeko.

2016an, Hezkidetza proiektuaren ebaluazioa eta sistematizazioa egiteko 3 enpresa gonbidatu ondoren, Elhuyar Aholkularitzaren laguntza teknikoarekin egitasmoa martxan jarri zen. 2017ko martxotik urrira bitartean egindako prozesuaren nondik norakoak jaso dira eta memoria bat egin da.

Horrela, Berdintasun Departamentuak proiektu honi jarraipena emateko helburuarekin eta ikusita horrelako egitasmoa ezin duela berak gauzatzerik izango, proposamena egin du kanpoko laguntza teknikoa prozedura irekiaren bidez kontratatzeko.

Kontratuak bi urteko iraupena izango du eta beste bi (2) urtez luzatu ahal izango da, urtez urte, gehienez lau (4) urte arte, berariaz eta bi aldeen adostasunarekin. Proiektuaren gehieneko aurrekontua izango da 36.000 € (BEZa barne) eta 1.1400.227.04.231.60.2018 aurrekontu partidari kreditua dago kontratua betetzeko.

Hori horrela, Berdintasun Departamentuak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Udalaren Hezkidetza proiektua gauzatzeko, kanpoko laguntza teknikoa kontratatzeko kontratazio-espeditentea onartzea.

BIGARRENA.- Kontratuaren urteko gehieneko aurrekontu estimatua 36.000 € (BEZa barne) izatea eta kontratu honek eragiten duen gastu-kopurua onartzea, honako aurrekontuko partidari atxikiko zaiolarik: 1.1400.227.04.231.60.2018

Kontratazio honen xede diren zerbitzuak gauzatzeko epea BI URTEKOA izatea, kontratu administratiboa sinatzen den egunetik zenbatzen hasita eta beste bi urtez luzatu ahal izatea, urtez urte, berariaz eta bi aldeen adostasunarekin.

HIRUGARRENA.- Aipatu kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.



LAUGARRENA.- Kontratazio jardunbideari hasiera ematea eta dagokion iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Tolosako Udaleko kontratugilearen profilean, lizitatzailleek euren proposamenak 15 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

BOSGARRENA.- Erabaki horiek Kontu-hartzailletza eta Berdintasun Departamentuari jakinaraztea.

4. Enplegune 2016-2017ko diru-laguntzen kitapena.

I.- 2016ko abuztuaren 22an, Tolosako Udalari 342.960,23 €-ko diru-laguntza eman zitzaion, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Zuzendari Nagusiaren Ebazpenaren bidez.

II.- 2016ko abenduaren eta 2017ko urtarrilaren artean, adostutako diru-laguntzaren % 50 ordaindu zitzairen egokitutako enpresei, beste % 50a programaren bukaerako ebazpenaren ondoren egingo delarik.

III.- 2017ko abenduaren 14an, Tolosako Udalari 287.835,03 €-ko diru-laguntza dagokiola azaltzen da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Zuzendari Nagusiaren Ebazpenaren bidez (Espediente Zbkia. R/16-LPE); hala, hasieran emandako diru-laguntza kontuan izanik, 55.125,20 € gutxiago izango da laguntza hori.

	EMANDAKO DIRULAGUNTZA	BENETAKO JUSTIFIKATUA	BEHIN BETIKOA DIRULAGUNTZA	DIFERENTZIA
TIPO 1	69.960,23 €	46.539,37 €	28.863,45 €	17.675,92 €
TIPO 2	204.000,00 €	193.711,74 €	190.711,74 €	3.000,00 €
TIPO 3	69.000,00 €	68.657,20 €	68.259,84 €	397,36 €
	342.960,23 €	308.908,31 €	287.835,03 €	
	DIFERENTZIA -55.125,20 €			



KONTRATATU TAKO PERTSONA	TIPO 1	BENETAKO KOSTU JUSTIFIKATUA	LANBIDEREN EBAZPENA 2017/12/18	EGINDAKO ORDAINKETA	ORDAINTZEKO FALTA DENA
	ENPRESA				
M.L.A.G	SUTARGI S.A.L. CEE 2007	5.457,62 €	0,00 €	2.728,81 €	-2.728,81 €
G.G.L.	SUTARGI S.A.L. CEE 2007	2.622,35 €	0,00 €	1.311,18 €	-1.311,18 €
A.C.R.	SUTARGI S.A.L. CEE 2007	2.622,35 €	0,00 €	1.311,18 €	-1.311,18 €
I.A.U	SUTARGI S.A.L. CEE 2007	3.222,35 €	0,00 €	1.611,18 €	-1.611,18 €
M.L.M.M	SUTARGI S.A.L. CEE 2007	8.724,71 €	8.671,14 €	4.362,36 €	4.308,78 €
P.S.M	SUTARGI S.A.L. CEE 2007	2.622,35 €	0,00 €	1.311,18 €	-1.311,18 €
A.M.I.G	SUTARGI S.A.L. CEE 2007	2.622,35 €	0,00 €	1.311,18 €	-1.311,18 €
A.A.E	SUTARGI S.A.L. CEE 2007	5.457,62 €	0,00 €	2.728,81 €	-2.728,81 €
A.C.O	IRURAKO UDALA	7.692,31 €	7.692,31 €	3.846,15 €	3.846,16 €
AURREKONTUAREN EBAZPENA 69.960,23 €.		41.044,01 €	16.363,45 €	20.522,03 €	-4.158,58 €

* SUTARGIri dagokionez:

2016ko abenduaren 23an, Sutargi-ren eskaeraren arabera, 1. ordainketa egin zitzaion, 16.675,88 €-koa.

Baina, Lanbideren azken erabakiaren arabera, 8.671,14 €-ko diru-laguntza dagokio.

Kontratu bakar bat onartzen dute, desgaitasuna dutenen kontratazioa baztertzea (2016ko ekainaren 16ko EHAako 114. zenbakiko 2.2. artikuluaen arabera, "Eskualdeetako enplegu-planetatik igorritako proiektu jakin batzuek ezin izango dute deialdi honetako laguntzarik jaso, baldin eta zerbitzuen esparruan edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatutako enplegu-politika aktiboak gauzatzean sortzen diren programen esparruan gauza badaitezke).

Halaber, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren edozein deialditan diruz laguntzeko diren jardueri lotuta gauza daitezkeen kontratuak, edo deialdi horien barruan zuzenean diruz lagunduak izan direnak").



KONTRATAT UTAKO PERTSONA	TIPO 2	BENETAKO KOSTU JUSTIFIKATUA	LANBIDEREN EBAZPENA 2017/12/18	EGINDAKO ORDAINKETA	ORDAINTZEKO FALTA DENA
	ENPRESA				
D.A.B	LANGA POES, S.L.	4.318,68 €	4.318,68 €	2.159,34 €	2.159,34 €
A.B.C	PRECOCINADOS LANBROA, S.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
M.O.E.A	NEREA GONZALEZ ARANCETA	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
E.E.A	ORBINOX VALVES INTERNATIONAL, S.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
L.T.A	"JATORKIN" ASOCIACIÓN PRO INMIGRANTES DE TOLOSA	9.000,00 €	6.000,00 €	4.500,00 €	1.500,00 €
A.G.V	S.O.S RACISMO GIPUZKOA	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
M.A.A	JOSE MIGUEL GURRUCHAGA OTAMENDI Y OTRO, C.B	6.000,00 €	6.000,00 €	4.500,00 €	1.500,00 €
I.A.A.	JOSE MIGUEL GURRUCHAGA OTAMENDI Y OTRO, C.B	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
J.A.FP	ASOCIACIÓN DE SOLIDARIDA Y AYUDA HUMANITARIA "ZUTANI-TOLOSA"	9.000,00 €	9.000,00 €	9.000,00 €	0,00 €
M.J.A.L	IÑAKI BEGUIRISTAIN OYARZABAL	6.000,00 €	6.000,00 €	4.500,00 €	1.500,00 €
J.O.A	IÑAKI BEGUIRISTAIN OYARZABAL	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
E.Z.A	ARRITOQUIETA ZUGARRAMURDI IRIGOYEN	9.000,00 €	9.000,00 €	4.500,00 €	4.500,00 €
J.C.G.G	IRUPAPER, S.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
H.E.S	IRUPAPER, S.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
O.I.F	GARAIKOETXEATXAKOLINDEGIA, S.L	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
J.E.I	GARAIKOETXEATXAKOLINDEGIA, S.L	4.120,88 €	4.120,88 €	3.000,00 €	1.120,88 €
S.G	PATXINE SEMEAK, S.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
E.A.S.E.I.S	CONSTRUCCIONES METALICAS ELDU, S.L.L.	5.604,40 €	5.604,40 €	3.000,00 €	2.604,40 €
A.H	CONSTRUCCIONES METALICAS ELDU, S.L.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
N.R.R.	GU KI MAKROBIOTIKA, S.L.	9.000,00 €	9.000,00 €	4.500,00 €	4.500,00 €
X.C.M	MONTAJES Y MECANIZACIONES BASALAN, S.L.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
G.I.A.	REPARACIÓN DE MAQUINARIA SAIZAR S.L.	2.802,20 €	2.802,20 €	2.802,20 €	0,00 €
J.A.L.Z	ANGEL LUIS OVIEDO, S.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
J.M.S.S	TALLERES ALLUS, S.A.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
J.I.N	IBARRA ARGILANAK, S.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
I.D.U	BENEFIT PARAFARMAZIA, S.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
M.M.G	OLGAIZ CONSTRUCCIONES MECANICAS, S.L.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
M.I.C.G	JUAN CARLOS AMIANO ECHEZARRETA	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
M.C.JI	MARIA JESUS OÑATIVIA GONZALEZ DE URIARTE	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
A.E.V	MARIA JOSE CIPITRIA ECENARRO	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
X.I.A	EURO MODEL MODELOS PARA FUNDICIÓN, S.L.	5.535,91 €	5.535,91 €	2.767,95 €	2.767,96 €
E.A.E	ORBINOX VALVES INTERNATIONAL, S.L.	3.329,67 €	3.329,67 €	1.664,83 €	1.664,84 €
	AURREKONTUAREN EBAZPENA 204.000,-- €	193.711,74 €	190.711,74 €	106.894,32 €	83.817,42 €

*JATORKINI dagokionez:

2016ko abenduaren 23an, Jatorkinen eskaeraren arabera, 1. ordainketa egin zitzaion, 4.500,00 €-koa.

Baina Lanbideren azken erabakiaren arabera, 6.000,00 €-ko diru-laguntza dagokio.

Kontratua onartzen dute, baina 3.000,00 €-ko murrizketa dagokio, izan ere, kontratatutako pertsonak ez du 4.2 artikularen baldintza betetzen (2016ko ekainaren 16ko EHAako 114. zenbakiko 2.2. artikularen arabera "Luzaroko langabeak. Luzaroko langabetzat joko dira kontratatu aurretiko 18 hiletan, gutxienez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa inskribatuta egon eta langabezia 12 hilabete eman dutenak.").



TOLOSAKO
UDALA

*ZUTANlri dagokionez:

2016ko abenduaren 26an, ZuTA Nlren eskaeraren arabera, 1. ordainketa egiten zitzaion, 4.500,00 €-koa.

2017ko abenduaren 11n egindako 10445 zenbakia duen eskaeran, "Langunea Tolosaldean, 2016" programaren barruan eskaintzen ziren diru-laguntzen 2. zatiaren erreklamazioa egin zuten. Bertan beren beharra azaldu zuten, haien egoera ekonomikoa azalduz: pertsona horren soldatei aurre egiteko beharrezko bankuko kreditua deuseztatzeko fondorik gabe zeudela.

Beraz, kontuan harturik eskatutakoa eta beharrezkoak izan ziren agiri guztiak epe barruan aurkeztu zituztela, 2017ko abenduaren 28an ordainketa egin zitzaion.

KONTRATA TUTAKO PERTSONA	TIPO 3	BENETAKO KOSTU JUSTIFIKATUA	RESOLUCION LANBIDE 18/12/2017	EGINDAKO ORDAINKETA	ORDAINTZEKO FALTA DENA
	ENTRESA				
A.Z.P	NAGORE AZUABARRENA ANDUAGA	3.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €	0,00 €
R.V.E	OLGAIZ CONSTRUCCIONES MECANICAS, S.L.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
C.Q.Y	MARIA TERESA DE OLABERRIA RUIZ	5.657,20 €	5.657,20 €	2.828,60 €	2.828,60 €
A.I.E	LASER ORIA, S.L.	6.000,00 €	5.602,64 €	3.000,00 €	2.602,64 €
X.G.L	LASER ORIA, S.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
M.A.O	BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA, S.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
H.L.L.L	BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA, S.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
J.F.J.J	BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA, S.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
M.A.C.P	BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA, S.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
M.I.H.G	RAFA GORROTXATEGI 1680, S.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
M.B.D.O	RAFA GORROTXATEGI 1680, S.L.	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
T.L.R.G	NEREYDA ISABEL CHAVARRIA	6.000,00 €	6.000,00 €	3.000,00 €	3.000,00 €
AURREKONTUAREN EBAZPENA 69.000 ,-- €		68.657,20 €	68.259,84 €	35.828,60 €	32.431,24 €

* LASER ORIAri dagokionez:

2017ko urtarrilaren 31n , Laser Oriaren eskaeraren arabera, 1. ordainketa egiten zitzaion, 3.000,00 €-koa.

Baina Lanbideren azken erabakiaren arabera, 5.602,64 €-ko diru-laguntza dagokio.

Kontratua onartzen dute, baina 397,36 €-ko murrizketa dagokio, AIEren azken hilabeteko lanordu kopuruan murrizketa egon baitzen.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Enpleguko teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO
UDALA

ERABAKI DU

LEHENA.- Enplegune 2016-2017ko diru-laguntzen kitapena onartzea honela:

1. Lanbideren murrizketaren ebazpena onartzea, hau da, Sutargi-ri diru-laguntzaren itzulera eskatzea, eta Jatorkin-i eta Laser Oriari murrizketak ezartzea.

2. SUTARGI-ri 2016ko abenduaren 23an, Sutargi-ren eskaeraren arabera, 1. ordainketa egiten zitzaion, 16.675,88 € koa; baina Lanbideren azken erabakiaren arabera, 8.671,14 €-ko diru-laguntza dagokio.

Izan ere, kontratu bakar bat onartzen dute, desgaitasuna dutenen kontratazioa baztertzea (2016ko ekainaren 16eko EHAAko 114. zenbakiko 2.2. artikulua arabera)

Beraz, 8.004,74 €-ko itzulera eskatzea.

3. IRURAKO UDALARI falta zaion ordainketa egitea, guztira, 3.846,16 €.

4. JATORKIN ELKARTEA-ri 1.500,00 €-ko ordainketa egitea.

Kontratua onartzen dute, baina 3.000,00 €-ko murrizketa dagokio, eta Lanbideren azken erabakiaren arabera, 6.000,00 €-ko diru-laguntza da.

Kontratututako pertsonak ez du 4.2 artikulua baldintza betetzen (2016ko ekainaren 16ko EHAAko 114 zenbakiko 2.2. artikulua arabera).

5. LASER ORIARI 2.602,64 €-ko ordainketa egitea.

Kontratua onartzen dute, baina 397,36 €-ko murrizketa dagokio, AIEren azken hilabeteko lanordu kopuruan murrizketa egon baitzen. Lanbideren azken erabakiaren arabera, 5.602,64 €-ko diru-laguntza dagokio.

4. Goian aipatutako taularen arabera, 2 Motako enpresei falta den ordainketa egitea: 83.817,42 €.

5. Goian aipatutako taularen arabera, 3 Motako enpresei falta den ordainketa egitea: 32.431,24 €.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Enplegu Departamentuari eta Kontuhartzailtzari.



5. Enplegune 2017-2018ko diru-laguntzen aurreneko ordainketa.

I.- 2017ko uztailaren 27an, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak enplegu sustatzeko toki-ekintzetarako 2017ko ekitaldiko laguntza deialdiari buruzko ebazpena eman zuen (2017ko uztailaren 28ko EHAA 143.zkian argitaratua).

II.- 2017ko irailaren 12an, Tolosaldeko enplegu plana aurrera eramateko foroa elkartu zen eta bertan eskaera onartu zen. Bertaratuak hauek izan ziren: Alkizako Udala, Alegiako Udala, Villabonako Udala, Asteasuko Udala, Hernialdeko Udala, Ibarako Udala, Alzoko Udala, Berastegiko Udala, Tolosako Udala, Tolomendi, Sutargi, Katealgaia eta Tolosaldea Garatzen.

III.- 2017ko irailaren 15ean, Tolosako Udalak, eskualdeko udalen izenean, Lanbideko bulegoetan egin zuen aipatutako eskaera, 302321 zenbakiarekin.

IV.- 2017ko azaroaren 2an, Lanbide-Euskal enplegu zerbitzuko zuzendari nagusiaren bidez, diru-laguntza onartutzat eman zen, R/17-LPE-5G espediente zenbakiarekin. Eskaeran eginiko proposamena onarturik, Tolosako Udalarik 281.839,37 € dagozkio eta diru-laguntzaren banaketa azaltzen da:

2017-12-13 LANBIDEREN EBAZPENA	
TIPO 1	175.000,00 €
TIPO 2	98.839,37 €
TIPO 3	8.000,00 €
	281.839,37 €

V.- 2017ko abenduaren 15ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen iragarkian, Tolosaldeko merkatu arruntean langabetuak kontratatzeke diru-laguntza deialdia egin zen, 2. eta 3. motako lanpostu kopuruaren arabera.

VI. Tolosako Udalak 155.011,65 € jaso zituen, diru-laguntzaren %55, 2017ko abenduaren 21ean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuen 2017-2018ko toki-ekintzetarako laguntzen deialdiaren babesean.



TOLOSAKO
UDALA

VII.- 2017ko abenduaren 18an Gobernu Batzarrak hartu zuen erabakian 1 Motako diru-laguntzaren banaketa onartu zen. 2017ko uztailaren 28ko Lanbide-Enplegu Zerbitzuak EHAA 143. zenbakian argitaratutako baldintzetan, 9.artikuluak dioen bezala, eskatutako dokumentazio guztia onartutzat ematen denean lehenengo ordainketa egiten dugu.

VIII.- 2017ko abenduaren 26an Gobernu Batzarrak hartu zuen erabakian 2 Motako eta 3ko diru-laguntzen banaketa onartu zen. 2017ko abenduaren 15en, GAOn, 238. zenbakiko iragarkian, 8. puntuan dioen bezala, eskatutako dokumentazio guztia onartutzat ematen denean lehenengo ordainketa egiten dugu.

Hori horrela, eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, ikusirik baldintzak betetzen dituztela eta Enplegu teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Hurrengo taulan agertzen diren enpresa eta entitatei 1. ordainketa egiteko proposamena onartzea. Hau da, ebazpenak dioen bezala, diru-laguntzaren % 55 ordaintzea:

- Behean aipatzen den taularen arabera, 1 Motako enpresei ordainketa egitea, guztira, 41.130,10 €.
- Behean aipatzen den taularen arabera, 2 Motako enpresei ordainketa egitea, guztira, 36.268,41 €.
- Behean aipatzen den taularen arabera, 3 Motako enpresei ordainketa egitea, guztira, 95.548,51 €.



TOLOSAKO
UDALA

TIPO 1, 2 eta 3 KOLEKTIBOAK				
ENPRESA		AURREIKUSITAKO KOSTUA	DIRULAGUNTZA	1.ORDAINKETA (%55)
ALKIZAKO UDALA		19.907,33 €	12.500,00 €	0,00 €
ALTZOKO UDALA		12.282,00 €	12.282,00 €	6.755,10 €
LARRAULGO UDALA		19.123,59 €	12.500,00 €	6.875,00 €
AMASA-VILLABONAKO UDALA		17.896,27 €	12.500,00 €	6.875,00 €
AMASA-VILLABONAKO UDALA		17.896,27 €	12.500,00 €	6.875,00 €
TOLOSAKO UDALA		20.215,43 €	12.500,00 €	0,00 €
TOLOSAKO UDALA		26.098,62 €	12.500,00 €	0,00 €
TOLOSAKO UDALA		22.365,08 €	12.500,00 €	0,00 €
TOLOSAKO UDALA		24.145,37 €	12.500,00 €	0,00 €
TOLOSAKO UDALA		17.683,39 €	12.500,00 €	0,00 €
ALEGIAKO UDALA		16.435,22 €	12.500,00 €	6.875,00 €
AMEZKETAKO UDALA		22.672,71 €	12.500,00 €	0,00 €
AMEZKETAKO UDALA		22.672,71 €	12.500,00 €	6.875,00 €
TOLOSALDEA GARATZEN		21.961,52 €	12.500,00 €	0,00 €
		281.355,51 €	174.782,00 €	41.130,10 €
LANBIDEK ONARTUA	175.000,00 €			
MARIA JESUS OÑATIVIA GONZALEZ (LA ALUBIA MAGICA)		9.152,63 €	6.000,00 €	3.300,00 €
MARIA TERESA MOZO Y OTRAS C.B. (SABERRI)		8.332,49 €	6.000,00 €	3.300,00 €
BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA S.L		12.694,14 €	6.000,00 €	0,00 €
BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA S.L		12.694,14 €	6.000,00 €	0,00 €
BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA S.L		12.694,14 €	6.000,00 €	0,00 €
JATORKIN AL-NAHDA ASOC. INTEGRAC. MA		9.000,00 €	6.000,00 €	3.300,00 €
OLGAIZ CONSTRUCCIONES MECANICAS S.L.L		8.531,72 €	6.000,00 €	3.300,00 €
COMERCIAL URRAKI S.L.		10.850,32 €	6.000,00 €	3.300,00 €
GOIKO 2000 S.L.		8.510,76 €	6.000,00 €	3.300,00 €
MARIA TERESA DE OLABARRIA RUIZ (VISUAL T)		7.923,42 €	5.942,57 €	3.268,41 €
IKOM IRUDI ETA KOMUNIKAZIOA S.L.		6.707,86 €	0,00 €	0,00 €
RESIDENCIA SAN COSME Y SAN DAMIAN S.L.		13.505,73 €	6.000,00 €	3.300,00 €
LASER ORIA S.L.		11.000,00 €	6.000,00 €	3.300,00 €
SUTARGI S.L.		8.721,69 €	6.000,00 €	3.300,00 €
SUTARGI S.L.		14.556,67 €	6.000,00 €	3.300,00 €
		154.875,71 €	83.942,57 €	36.268,41 €
LANBIDEK ONARTUA	98.839,37 €			
INAKI BEGUIRISTAIN OYARZABAL (SAGARDOTEGIA)		11.256,56 €	2.000,00 €	1.100,00 €
MARI CARMEN BARRIOLA OTAEGUI (ERROTATXO)		11.663,42 €	6.000,00 €	3.300,00 €
		22.919,98 €	8.000,00 €	4.400,00 €
LANBIDEK ONARTUA	8.000,00 €			
		281.839,37 €	459.151,20 €	266.724,57 €
				81.798,51 €

- IKOMekin adostutako 6.000 €-ko diru-laguntza bertan behera gelditzea proposatzen da, kontratatutako langileak (M.E.O) kontratua bertan behera utzi duelako.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Enplegu Departamentuari.



TOLOSAKO
UDALA

6. Beotibar pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilatua eta fatxada birgaitzeko eta pilotalekuko eraikineko irisgarritasun proiektua onartzea.

I.- Tolosako Udaleko arkitektoak, 2018ko otsailaren 6an, jarraian eranstean den txostena eman du:

GAUZATZE-PROIEKTUAREN ONARPENA.

HELBIDEA: San Frantzisko 4 (Beotibar pilotalekua)

ESKATZAILEA: Tolosako Udala.

ESKAERA: Gauzatze proiektua onartzea.

DOKUMENTAZIOA:

2017ko abenduan idatzitako gauzatze proiektua

2018ko otsailean idatzitako gauzatze proiektua (1. aldaketa)

IDAZLEA: Jose mari Aseginolaza Iparragirre arkitektoak.

ESPEDIENTEA: B521/ 179.2

URTEA: 2018

TXOSTENA:

Txosten honen helburua da "Beotibar" pilotalekuko gauzatze proiektua onartzea lizitazioa egiteko. Egin nahi diren obrak hauexek dira:

- Ostalaritza eraikinean, teilatua eta fatxada birgaitzea
- Pilotalekuko eraikinean, irisgarritasuna bermatzeko obrak (igogailu berria, eskailera egokitu eta kanpoko arrapala).

Tolosako Udalak kontsignaturik du obra gauzatzeko behar duen diru-kopurua 2018ko aurrekontuan, 1000.622.02.342.20 2018 partidan, hain zuzen ere.

I. AURREKARIAK eta ESKU-HARTZEAREN XEDEA

1992ko uztailaren 22an, Beotibar pilotalekuan kokaturiko taberna eta jatetxearen zaharberitze- eta ustiatze-kontratua sinatu zen. Ustiapenaren epea 25 urtekoa zen, pleguek horrela jasotzen zutelako. Ondorioz, 2017ko uztailaren 21a zen martxan dagoen ustiapenaren epemuga.

Ustiapen berria lehiaketara atera beharra zegoela jakitun izanda, 2017ko apirilean Tolosako Udalak dokumentu bat landu zuen eraikina bere osotasunean (ostalaritza-erakina eta kirol-ekipamendua) aztertzeko helburuarekin. Dokumentu hori honako ataletan dago sailkatua:

01 DOKUMENTUA: gaur egungo dokumentazioaren azterketa.

02 DOKUMENTUA: indarrean dagoen araudiaren betetze-azterketa.



TOLOSAKO
UDALA

03 DOKUMENTUA: aukera ezberdinen azterketa, gaur egungo dokumentazioaren eta araudi-betetzearen ostean.

04 DOKUMENTUA: hautatutako aukeraren fasekako egikaritzaren azterketa tekniko-ekonomikoa.

05 DOKUMENTUA: hautatutako aukeraren eraberritze osoaren eta partzialaren (fasez fasekako) aurreproiektua.

2017ko uztailaren 14an, Tolosako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzari eskatu zion udal lizentziaren aldez aurreko txostena, 7/1990 Legeak, Euskal Kultura Ondoreari Buruzkoak, bere 29. artikuluan aurreikusten duena.

2017ko irailaren 8an, Kultura Zuzendaritza Nagusiak eskatu zuen aurkezturiko aurreproiektua osatzeko babes dekretuak ezarritako gutxieneko informazioarekin.

Eskaturiko informazioa osatzeko, Udalak Daniel Carballo Ostolaza arkitektoari txosten bat eskatu zion, non aztertu zen aurkeztutako aurreproiektuak Beotibar pilotalekuaren elementu tipologiko, formal eta egiturazkoetan zuen eragina.

Informazio hori guztia mahai gainean jarri ondoren, Aldundiak ez zuen ontzat eman aurkezturiko aurreproiektua.

Horren ondorioz, aurreproiektu berri bat idatzi zen, 2017ko abenduak datarekin. 2017ko abenduaren 14an, aurreproiektu berri horretan jasotako irizpideak ontzat eman zituen Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiak.

Udala, aldi berean, plegu batzuk prestatzen ari da, ustiapena berriro lehiaketara ateratzeko, eta jarduera ezberdinen arlo ekonomikoa aztertzeko, bideragarritasun plan bat garatu du, bai taberna-kafetegia jarduerarena eta baita jatetxearena ere.

Bestalde, 2017ko azaroaren 7an, alkatearen 2017/1990 zenbakidun Dekretuaren bidez, Jose Mari Aseginolaza Iparragirre arkitektoari adjudikatu zitzaion kontratua, Beotibar pilotalekuko ostalaritza eraikinaren teilatua eta fatxada birgaitzeko eta pilotalekuko eraikineko irisgarritasun obren proiektua eta obra-zuzendaritza eramateko, zegokion lehiaketa egin ondoren publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez.

2017ko abenduaren 29an eskaturiko exekuzio proiektua aurkeztu zuen Jose Mari Aseginolazak.

2018ko urtarrilaren 18an, Tolosako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzari eskatu zion udal-lizentziaren aldez aurreko txostena, 7/1990 Legeak, Euskal Kultura Ondoreari Buruzkoak, bere 29. artikuluan aurreikusten duena.

2018ko urtarrilaren 23an, Imanol Agirre Manterola arkitekto aholkulariak (Earki Arkitektoak, S. Coop. Peg. P.) kontrako txostena egin du gauzatze proiektuari buruz (ikus UA18008).

2018ko urtarrilaren 30ean, bilera bat egin zen proiektuan aldatu behar diren gauzak argitzeko (Partaideak: Jose mari Aseginolaza, Imanol Agirre, Tatiana Ramírez).

2018ko urtarrilaren 26an, Foru Aldundiko Kultura Sailak hauxe ebatzi zuen:



- Aldeko txostena ematen da baldintza hauekin:
 - Fatxadetako emokaduren azterketaren emaitzak izandakoan eta fatxadetako esku hartzea hasi aurretik, hauek Foru aldundian aurkeztu beharko dira, egin beharreko tratamenduak azterketaren emaitzekin bateragarri direla bermatzen duen txosten batekin batera.
